



EBAZPENA, 2022ko uztailaren 21ekoa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, Lehendakaritzaren 2022rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzen duena.

Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2022ko otsailaren 9ko Ebazpenaren bidez, Lehendakaritzaren 2022rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu zen.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzeko eskatu du, honako hauei buruzko datuak eguneratzeko:

1.- KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRU-LAGUNTZEN NEURRIAK (2025eko KANPO HARREMANETARAKO PLANAREkin lotuta, 2025 EUSKADI BASQUE COUNTRY Nazioartekotzeko Esparru Estrategian integratua).

1.1.- BEKAK

KANPO-EKINTZEN BEKAK: EUROPAKO GAJETARAKO BEKAK / KANPOAN DEN EUSKAL KOMUNITATEAREN ALORREKO BEKAK / KANPO HARREMANETARAKO BEKAK

Ebazpen honen xedea da Lehendakaritzaren 2022rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, egin nahi den diru-laguntzen deialdia eta indarrean dagoen Diru-laguntzen Plan Estrategikoan aurreikusitakoa bat etor daitezen.

Horren ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2022ko otsailaren 9ko Ebazpena, datu hauek eguneratzeko: Kanpo Harremanetarako beka: Europako Gaietarako beka, Kanpoan den Euskal Komunitatearen 7 beka eta Kanpo Harremanetarako beka.

Bigarrena.– Ebazpen honen eranskinean aurreikusitakoaren arabera, Kanpo Harremanetarako beken fitxa aldatzea: Europako Gaietarako beka/Kanpoan den Euskal Komunitatearen beka/Kanpo Harremanetarako beka.

Hirugarrena.– Ebazpen hau argitaratzea dagozkion bitarteko ofizialen bidez eta, betiere, Lehendakaritzari dagokion webgunean: www.euskadi.eus.

Jesús Peña Martínez
Lehendakaritzaren idazkari nagusia